

**92/2008 EBAZPENA, martxoaren 5ekoa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2008. urtean Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko baliabideak eskaintzeko deialdia onesten duena.**

Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuko zuzendariak txosten bat eman du eta bertan adierazi komeni dela argitaratzea Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxe publikoetan, 2008. urtean, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko baliabideak eskaintzeko deialdia.

Hezkuntzaren garapenak hezkuntza jardueraren alderdi garrantzitsu hori kontuan hartzea eskatzen du, osagarria baita curriculum proiektuko eskola-ekintzetarako.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.1. artikuluko d) idatz-zatiak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

**EBATZI DUT:**

1. Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza ematen duten Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetan 2008. urtean eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko baliabideak eskaintzeko ondotik doan deialdia onestea.

2. Gastuaren zenbatekoa, guztira 216.357 euro, "Escolaz kanpoko jarduerak antolatzea ikastetxe publikoetan" izeneko 422000-42120-2269-322D00 kontusailaren kargura ordaintzea.

3. Deialdia eta bere eranskinak Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu daitezela agintzea.

4. Ebazpen hau eta eranskinak igortzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Hezkuntzakoan duen kontu-hartzaileari, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuari, Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuari, Hezkuntza Garapenaren Atalari, Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegoari eta Aurrekontu eta Kontabilitate Bulegoari, behar diren ondorioak izan ditzaten.

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean.–Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusia, Teresa Aranaz Jiménez.

#### ERANSKINA

*Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan 2008. urtean escolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko baliabideak eskaintzeko deialdia*

Deialdi publiko honen helburua Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetako escolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien antolaketa finantzatzea da, 2008. urtean, ordutegi malgua duten ikastetxeen escolaz kanpoko jarduerak izan ezik, sistema horren ezarpenaren babesean finantzatzeko baitira.

Hezkuntza prozesu integrean garrantzi berezia ematen zaie ikastetxeetan bultzatu eta antolatzen diren escolaz kanpoko jarduerari eta jarduera osagarriari, curriculum proiektu berean eskola-ekintzak osatzen baitituzte.

Prozesu horren lagungarri eta bultzagarri, Hezkuntza Departamentuak jendaurrera atera du 2008. urtean Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan escolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak antolatzeko deialdia, honako arau hauei jarraikiz:

#### OINARRIAK

1. Deialdi honen onuradun Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza ematen duten Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoak izan daitezke, ordutegi malgua duten ikastetxeak izan ezik, haien escolaz kanpoko jarduerak ordutegi horren ezarpenaren babesean finantzatzeko baitira.

Toki Administrazioen menpe dauden ikastetxeek ikastetxe pribatuetan escolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko laguntzen deialdira aurkeztu beharko dute.

Deialdi honetan parte hartzeko, nahitaezkoa da 2007an hartutako laguntzak behar bezala justifikatu izana.

2. Deialdi honetan parte hartzeko eskaera egiten duten ikastetxeek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

A) Eskabidea, behar bezala bete, I. eranskinen ereduaren arabera. Horretan Eskola Kontseiluko buruak ziurtatu beharko du jarduerak Eskola Kontseiluak onetsi dituela eta urteko programazio orokorraren barnean daudela.

B) Laguntzen xede diren jarduera guztien azalpena, II. eranskinen ereduaren arabera.

C) Deialdi honetara aurkeztu diren jarduera guztien zerrenda-laburpena, III. eranskinen ereduaren arabera.

3. Eskabideak Hezkuntza Departamentuko Erregistroan, Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokorraren edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako bestelako bideren bat erabiliz aurkeztu ahalko dira.

4. Eskaerak aurkezteko epea 2008ko urtarilaren 21ean bukatuko da.

Epez kanpo aurkeztu diren eskaerak eta eranskinak behar bezala beteak ez dituztenak, edo datu faltsu nahiz ez-osoekin igortzen direnak, baztertu egingen dira.

Eskabideek 2. arauko baldintzak betetzen ez badituzte, interesdunei jakinaraziko zaie eta hamar eguneko epea emanen, jakinarazi eta biharamunetik hasita, akatsak zuzentzeko.

Eskatutako agiriak aurkezterakoan, ingurumenaren arloko praktika egokiak kontuan hartzeko gomendioa ematen da, paperaren erabilera zentzuzkoagoa izan dadin, adibidez, paper birziklatua eta klororik gabe zuritutakoa erabiltzea eta bi aldeetatik inprimatu edo fotokopiatzea.

5. Hezkuntza Departamentuak gehienez ere hiru hilabeteko epean emanen du deialdi honen gaineko ebazpena, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita.

6. Deialdia Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak ebatziko du, Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzuak proposamena egin ondoren, prozeduraren instrukzio organoa den aldetik.

7. Hartarako eratu den batzorde batek aurkeztu diren eskaera guztiak aztertuko ditu, eta deialdiaren 8. arauan aipatzen diren banaketa irizpideak egoki betetzen diren ala ez begiratu du. Ondoren esleipen proposamena egingen dio organo instruktoari.

Batzorde hori ondoko hauek osatuko dute:

Batzordeburua: Hezkuntza Garapenaren Ataleko burua.

Batzordeko kideak:

Guraso eta Ikasleentzako Argibide eta Aholku Bulegoa burua.

Ikastetxeen ordezkarri bat, eskaera egin duten ikastetxeetako zuzendarien artean zozketa bidez aukeratu beharrekoa.

Mahaikide idazkaria: –Curriculum-diseinurako Bulegoa burua.

8. Eskaera egin duen ikastetxe bakoitzari eman beharreko laguntza zehazteko, Batzordeak honako hauek hartuko ditu kontuan: onartutako eskabideen kopurua, ikastetxeen ikasle kopurua, ikasle ezaugarri geografikoak eta sozio-ekonomikoak eta aurkeztutako proiektuen kopurua, kalitatea eta interesgarritasuna.

Horretarako, ondoko banaketa irizpideei jarraikiz:

A) Esleituriko zenbateko osoaren %21 onartzen diren eskaeren artean banatuko da; eskaera guztiei zenbateko bera emanen zaie.

B) Zenbateko osoaren %29 proportzionalki banatuko da, ikastetxeen ikasle kopuruaren arabera.

C) Zenbateko osoaren %8 proportzionalki banatuko da, ikastetxe bakoitzean dauden egoera ekonomiko ahuleko familietako ikasle kopuruaren arabera. Horretarako, kontuan hartuko dira departamentu honetan dauden datuak.

D) Zenbateko osoaren %8, ikastetxeen arteko desberdintasun geografikoak konpentsatzeko.

E) Gelditzen den %34a, aurkeztutako eta onartutako jardueren arabera banatuko da, deialdi honetako 9. eta 10. arauetan ezarritakoari jarraikiz.

9. Aurkeztutako jarduerak baloratzeko, eskola komunitateak antolatuta eta ikasleak protagonista bihurtzen dituzten jarduerak guztiak hartuko dira kontuan (txango didaktikoak, antzerkia, zinea, abesbatzak, musika entzunaldiak, eskola aldizkariak, kirolak, arlo didaktikoekin zerkusia duten bestelako jarduerak, etab.), eskola orduetan nahiz eskola ordutik kanpo eginak, baldin eta hurrengo atalean bazter ez badira.

Lehetasuna izanen dute honako gai hauei buruzko edukinak lan-tzen dituzten jarduerak: berdintasunerako eta bizikidetzarako baketsurako hezkuntza, ingurumen-hezkuntza, osasuna, bide hezkuntza eta kontsumo arduratsua.

10. Deialdi honetan ez dute lekuri izanen ondoko hauek:

A) Ikastetxeen urteko programazio orokorraren barruan sartuta ez dauden eta/edo Eskola Kontseiluak onartzen ez dituen jarduerak.

B) Departamentu honen edo beste erakunde publikoren baten deialdiaren bidez laguntza jaso duten jarduerak.

C) Ikastordua ohiz gehitzea ekartzen duten jarduerak.

D) "Ikasketa bidaia" eta egun bat baino gehiago irauten duten jarduerak, egonaldiak edo bidaia.

E) Material inbentariagarria erostea.

F) Atzerriko hizkuntzei lotuta dauden escolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak, departamentu honen horretarako deialdi berriazkoa egiten duelako.

11. Hezkuntza Departamentuak ikastetxe eskatzaileei batzordeak proposatutako diru kopuruaren berri emanen die, eta, konforme egon ezean, hamar egun balduneko epean egoki iruditzen zaizkien alegazioak eta dokumentazioa aurkeztu ahalko dute. Horrela interesdunei entzuteko trantea beteko da.

12. Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu du deialdi honen ebazpena eta bertan adieraziko du zer ikastetxe diren laguntza hauen onuradunak, zenbana ordainduko zaien eta zer ikastetxe baztertu diren, halakorik bada, eta zergatik.

13. Ikastetxe bakoitzari ematen zaion dirua epe bakar batean ordainduko da, esleitzen duen ebazpena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoren.

14. Laguntza hauek uztailearen 6an eman eta uztailearen 31ko Nafarroako Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 250/1992 Foru Dekretuari jarraituz justifikatu beharko dira. Foru dekretu horrek Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitate kanpoko ikastetxe publikoen funtzionamenduaren ondoriozko diru-sarrera eta gastuen araubidea ezartzen du.

Hartzen diren diru-sarrerak "Kudeaketako kontuan" justifikatu beharko dira. Ziurtagiriak ikastetxeen berean artxibatuko dira, salbu eta Eskola Kontseilua osatzeko daukaten ikastetxeetan eta hiru unitate baino gutxiago daukaten ikastetxeetan, horiek Hezkuntza Departamentura igorri beharko baitituzte ziurtagiriak, kudeaketako kontuarekin batera.

15. Hezkuntza Departamentuak eskubidea du edozein motatako argibide osagarriak eskatu eta diruz laguntzen diren jardueren ikuska-pena eta kontrola egiteko.

### I. ERANSKINA

*Eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko laguntza eskaera. Ikastetxe publikoak. 2008. urtea laguntza eskaera. Ikastetxe publikoak. 2008. urtea*

Helbidea: ..... Herria: .....

Telefonoa: ..... P.K.: .....

I.F.K.: .....

Ikasturte honetako ikasle taldeen kopurua: .....

Ikasturte honetako ikasleen kopurua: .....

Ematen diren hezkuntza mailak: .....

Goian aipatu datuak dituen ikastetxe honek eskatzen du 2008an ikastetxe publikoetan eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak ematen dituen laguntzen deialdian parte hartzea.

Ikastetxeko Eskola Kontseiluak, eta bere izenean kontseiluburua denak, ziurtatzen du jarduera hauek kontseilukideen gehiengoaren onespina jaso dutela eta ikastetxearen urteko programazio orokorraren barrenean sarturik daudela.

.....(e)n, 2008ko.....aren .....(e)an.

Eskola Kontseiluko burua  
(Sinadura eta zigilua)

### II. ERANSKINA

*Jarduera edo bidaien azalpen-txostena*

Jarduera/bidaia: .....

Zein mailatarako den: .....

Ikasle kopurua: .....

Lortu nahi diren helburuak: .....

Noiz egin: .....

Joan-etorrian zenbat kilometro: .....

Irakasle arduradunaren izena: .....

Gastuen aurrekontua (kontzeptuak zehaztu):

1.-..... Zenbatekoa: .....

2.-..... Zenbatekoa: .....

3.-..... Zenbatekoa: .....

Guztira: .....

Oharrak: .....

(Oharra: bete ezazue bat jarduera edo bidaia bakoitzeko)

### III. ERANSKINA

*Eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko laguntzen deialdian aurkeztutako jarduera eta bidaien zerrenda laburtua. Ikastetxe publikoak. 2008. urtea*

1.-..... Zenbatekoa: .....

2.-..... Zenbatekoa: .....

3.-..... Zenbatekoa: .....

4.-..... Zenbatekoa: .....

5.-..... Zenbatekoa: .....

6.-..... Zenbatekoa: .....

7.-..... Zenbatekoa: .....

8.-..... Zenbatekoa: .....

9.-..... Zenbatekoa: .....

10.-..... Zenbatekoa: .....

11.-..... Zenbatekoa: .....

12.-..... Zenbatekoa: .....

13.-..... Zenbatekoa: .....

14.-..... Zenbatekoa: .....

15.-..... Zenbatekoa: .....

Guztira: .....

.....(e)n, 2008ko .....aren .....(e)an.

Eskola Kontseiluko burua  
(Sinadura eta zigilua)

**548/2008 EBAZPENA, martxoaren 14koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eman eta kudeatzen dituen zenbait diru-laguntzarako 2008ko gastua egiteko baimena ematen duena.**

Maiatzaren 21eko 47/2007 Foru Dekretuaren bidez Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onetsi ziren. Estatutu horietan ezarritakoaren arabera, zerbitzu horren xedea da Nafarroako Gobernuaren enplegu politikak, eragile ekonomiko eta sozialekin adostutakoak, planifikatu eta gauzatzea, ondoko zerbitzu eta programa hauek modu koordinatuan kudeatuz: enplegua, lanean hastea, bitartekotza eta enplegurako orientazioa eta prestakuntza sustatzekoak eta Nafarroako enpleguaren egoera eta horren gaineko politikak aztertzeak. Diru-laguntza horien deialdiak 2008. urtea baino lehenago onetsi dira.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 30. artikulua ezartzen du diru-laguntzen deialdiek berekin ekarriko dutela gasturako baimena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 23ko 13/2007 Foru Legearen 52. artikuluan ezarritako moduan.

Azaldutakoarekin bat, proposatutako txostena ikusita, eta maiatzaren 21eko 47/2007 Foru Dekretuak onetsitako Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Estatutuen 11.2 artikulua bidez ematen diren eskurantzak erabiliz,